BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

5586

EBAZPENA, 2011ko irailaren 16koa, Ingurumeneko sailburuordearena, Abadiño-Basauri 1 eta 2 linea elektrikotik (Iurretan), Smurfit Kappa Nervión hornitzeko, Iberdrola Distribución Eléctrica SAU enpresak sustatutako zirkuitu bikoitzeko 132 kV-ko linearen proiektuaren Ingurumen Eraginaren Adierazpena egitekoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren arabera, I. eranskineko B atalean agertzen diren proiektuak ingurumenaren gaineko eragina banaka ebaluatzeko jardunbide baten mende daude, eta jardunbide horri amaiera emateko Ingurumenaren gaineko Eraginaren Adierazpena egin beharko da, betiere proiektu horiek egiteko, edo, hala badagokie, baimentzeko hartzen den administrazio-erabakiaren aurretik.

Abadiño-Basauri 1 eta 2 linea elektrikotik (Iurretan), Smurfit Kappa Nervión hornitzeko, Iberdrola Distribución Eléctrica SAU enpresak sustatutako zirkuitu bikoitzeko 132 kV-ko linearen proiektua baimentzeko prozedura hasi denez, eta nahitaez aplikatu beharrekoa denez Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorrean xedatutakoa, eta Proiektuen ingurumen-inpaktua ebaluatzeko Legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa, ondoren aipatzen diren izapideak egin dira proiektu horri dagokionez:

● Ingurumen-inpaktuaren azterketaren helmena zehaztu da. Proiektuaren sustatzaileak eskatuta, 2010eko martxoaren 4an, Ingurumen Sailburuordetzak jendaurreko izapideari hasiera eman zion, proiektuek ingurumenean duten eragina Ebaluatzeko Legearen testu bategina onartzeko den urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 8.1 artikuluan ezarritakoa betez. Izapide horren ondorioz, ingurumen-organoak txosten bat eman zuen, 20010eko ekainaren 8an, ingurumen-inpaktuaren azterketaren hedaduraz eta xehetasun-mailaz.

● Jendaurreko informazioaren izapidea. Dagokion organoak jendaurrean jarri zituen proiektua eta proiektu horrek ingurumenean duen eraginaren ebaluaziorako azterlana. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 25. zk., 2011ko otsailaren 7koa, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 50. zk., 2011ko martxoaren 14koa).

● Espedientea bidaltzea eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena eskatzea. 2011ko ekainaren 3an, Energia eta Meategien Zuzendaritzak Ingurumen Sailburuordetzara bidali zuen espedientea, proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 12.1 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. 2011ko abuztuaren 25ean, ingurumen-organoak formulatutako betekizunekin bat, espedienteko dokumentazioa osatu zen.

Aipatutako proiektuaren dosierrean dauden txostenak eta dokumentazio teknikoa aztertu dira. Ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterketa zuzena dela ikusi da, eta indarrean dagoen araudian aurreikusten diren alderdiei egokitu egiten zaiela. Ingurumen Sailburuordetza da Ingurumenaren gaineko Eraginari buruzko Adierazpena emateko eskumena duen organoa, xedapen hauen arabera: Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Nekazaritza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuaren arabera,

EBATZI DUT:

1.– Abadiño-Basauri 1 eta 2 linea elektrikotik (Iurretan), Smurfit Kappa Nervión hornitzeko, Iberdrola Distribución Eléctrica SAU enpresak sustatutako zirkuitu bikoitzeko 132 kV-ko linearen proiektuaren Ingurumen Eraginaren aldeko Adierazpena egitea.

2.– Proiektua gauzatzeko baldintzak finkatzea. Baldintzak lotesleak dira, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legeko 47.2 artikuluan ezarritakoaren arabera. Hona hemen baldintzak:

2.A.– Proiektuak ingurumenean duen eraginaren ebaluazioa egiteko Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztutako agirietan jasotakoaren arabera gauzatu beharko da proiektua, eta, bereziki, ebazpen honetan finkatutako zehaztapenen arabera.

2.B.– Proiektua aldatu edo handitu nahi izanez gero, urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar da, bere II. eranskineko 9.k) epigrafearekin bat. Beraren bidez onartzen da Proiektuek Ingurumenean duten Eragina Ebaluatzeko Legearen testu bategina.

Eragindako lurren jabeak egindako alegazioaren ondorioz, 3. eta 4. euskarrien artean linearen trazatuan egin litekeen aldaketa puntualak, baita aurreko paragrafoan adierazitakoen garrantzirik izan ez eta lanak burutzeko falta diren gainerako prozeduretan sor litezkeen aldaketa txikiak ere, ingurumenaren ikuspegitik ere arrazoitu egin beharko dira, eta proiektuan sartu beharko dira aldaketok: proiektuaren neurri babesle eta zuzentzaileetan, ingurumena zaintzeko programan, aurrekontuan eta baldintza-agirietan.

2.C.– Babes neurriak eta neurri zuzentzaileak.

Neurri babesle eta zuzentzaileak, egitasmoaren sustatzaileak ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa egiteko aurkeztu zituen agirietan jasotakoaren arabera gauzatuko dira. Era horretan, batetik neurri horiek ezarrita, eta bestetik kontrola gauzatzeko pertsonala jarrita, kalitate-helburuak bermatu ahal izango dira: azterketan finkatutakoak eta ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpen honetan ezarritakoak. Ondoko atal hauetan adierazten diren neurriak gehitu beharko dira.

Neurri horiek guztiak, obra kontratatzeko baldintzetan sartu beharko dira, eta baldintza horiek betetzen direla bermatuko duen aurrekontua izan beharko dute.

2.c.1.– Ondare naturala babesteko neurriak.

Bertako hainbat baso-espezieren araubide bereziari buruzko urriaren 14ko 11/1997 Foru Aginduan xedatutakoa aplikatzearen kaltetan izan gabe, honako neurri hauek aplikatuko dira:

2.c.1.1.– Obrak, bai eta lurzorua erabiltzea eragiten duten eragiketa osagarriak ere, proiektua gauzatzeko behar-beharrezkoa den gutxieneko eremuan gauzatuko dira. Ahalik eta gehien mugatuko da espazioak obrako materialez okupatzea, eta makinak eta ibilgailuak horretarako prestatutako esparrutik kanpo ibiltzea.

Obrak hasi aurretik, obrarako sarbideek, euskarriak muntatzeko plataformek, obrako materialek, baita hondeaketa-lurrak eta hondakinak aldi baterako metatzeko tokiek ere, okupatzen dituzten eremuak behar bezala zehaztuko dira xehetasunezko kartografian. Muga hori Lanen Zuzendaritzak baimendu beharko du, eta, aldez aurretik, ebazpen honen 2.c.8 atalean aipatzen den txostena egingo du Ingurumen Aholkularitzak.

Adierazi den eremutik kanpo ustekabeko kalterik egingo balitz, neurri zuzentzaileak eta guneak oneratzeko neurri egokiak ezarriko dira; aldez aurretik, ebazpen honetako 2.c.8 atalean adierazten den txostena egingo du Ingurumen Aholkularitzak.

2.c.1.2.– Zuhaitz-landaredia naturala ebakitzea saihestuko da euskarriak, segurtasun-linea, sarbideak edo euskarriak muntatzeko plataformak eraikitzeagatik zuzeneko eragina aurrez ikusten ez den eremuetan.

Obrak hasi aurretik eta horien zuinketa egiten den bitartean, proiektuak eragindako azaleran ibilbide zehatzak egingo dira, aurreikusitako lanak oztopatzen ez dituzten eta kontserba daitezkeen zuhaitzak antzeman eta markatzeko; obratik gertuen dauden eta makinen kolpeak jasateko arriskua duten aleak babestu egingo dira.

2.c.1.3.– Trazatuak zuhaitz autoktonoak zeharkatzen dituen tokietan kableak eskuz jarriko dira, lur orotarako ibilgailuak eta makineria astuna erabili gabe.

2.c.1.4.– Uraren Euskal Agentziak eragindako administrazioekin egindako entzunaldiko izapidean emandako txostenean (2011ko otsailaren 1koan) ezarritakoaren kalterik gabe, Ibaizabal ibaia gurutzatzeko aurreikusitako jardueretan Alnus glutinosa eta Fraxinus excelsior espezieetako alubioi-basoan zuhaitzak botatzea saihestuko da, eta behar izanez gero bakarrik egingo dira aukerako ebaketa puntualak.

2.c.1.5.– Berariaz debekatuta izango da makinak konpontzea edo makinei olioa aldatzea, zeregin horretarako berariaz ezarritako eremuetatik kanpora. Lanak egiten ari diren inguruan ez balego azpiegitura egokirik zeregin horietarako, berariazko esparru bat egokitu beharko da lan horiek egiteko. Esparru hori mugatuta egongo da eta zorua iragazgaiztu egin beharko da; era berean, efluenteak jasotzeko sistema bat izango da, zorua eta urak ez kutsatzeko.

2.c.2.– Hautsemisioak murrizteko neurriak.

Obrak irauten duen bitartean neurriak hartuko dira, bai proiektuaren zuzeneko jarduera-eremuan, bai iristeko bideetan, ibilgailuek hautsik ez zabaltzeko, Behar izanez gero, pistak eta lanek eragindako azalerak ureztatzeko sistema bat jarriko da.

2.c.3.– Zaraten ondorioak gutxitzeko neurriak.

Eraikuntza-faseak iraun bitartean, beharrezkotzat jotzen diren obra-jardunbide egokien multzoa aplikatu beharko da, obra-makineriaren mantentze-lan orokorrei eta zarata gutxitzeari dagokienez.

Halaber, zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zonifikazio akustiko, kalitate-helburu eta igorpen akustikoei dagokienez, obrak egitean erabiliko diren makinak egokitu egin beharko dira kanpoan erabiltzeko makinen soinu-igorpenei buruz indarrean dagoen araudian ezarritako aginduetara, eta, bereziki, eta hala badagokie, kanpoan erabiltzeko makinek ingurumenean sortzen dituzten soinu-igorpenak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan eta arau osagarrietan ezarritakora.

2.c.4.– Kultura-ondarea babesteko neurriak.

Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritako gainerako xedapenak gorabehera, obretan aztarna arkeologikoren bat egon daitekeela pentsarazten duen zerbait aurkitzen bada, berehala jakinaraziko zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako Zuzendaritza Orokorrari; gero, beharrezkoa izanez gero, berak erabakiko du zer neurri ezarri.

2.c.5.– Hondakinak kudeatzeko neurriak.

2.c.5.1.– Obrek irauten duten bitartean nahiz linea elektrikoaren ustiapen-aldian sortzen diren hondakinak, besteak beste, hondeaketahondakinak, lantegiak eta enbalajeak prestatzetik datozenak, baztertzeko lehengaiak eta garbiketa-kanpainatik sortutakoak hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean eta araudi berariazkoetan aurreikusitakoarekin bat etorriz kudeatuko dira.

Obretan sortutako hondakinak teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak badira, baimendutako hondakinen baloratzailera eraman behar dira.

Hondakinak deuseztatzera bidali ahal izango dira, baldin eta aldez aurretik horiek balioztatzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren aldetik bidera ezina dela frogatzen bada soilik.

2.c.5.2.– Eraikuntza– eta eraiste-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan jasotakoaren arabera kudeatuko dira eraikuntza– eta eraiste-hondakinak. Horri dagokionez, eraikuntza-proiektuak eraikuntza– eta eraiste-hondakinen kudeaketaren azterlana jaso beharko du, aipatutako otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuaren 4.1.a) artikuluan ezarritako edukiarekin.

2.c.5.3.– Zabortegira bidali beharreko hondakinak, hondakinak zabortegietan utziz ezabatzea arautzen duen abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretuaren eta hondakinak zabortegietan utziz ezabatzea eta betegarriak egikaritzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren arabera ere kudeatuko dira. Hondakin horiek Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz karakterizatu beharko dira. Erabaki horren bidez hondakinak zabortegietan hartzeko irizpide eta prozedurak ezartzen dira, 1999/31/EEE Zuzentarauaren 16. artikuluarekin eta II. eranskinarekin bat etorriz.

Soberan dauden materialekin egiten diren betegarriek otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan ezarritako baldintzak bete behar dituzte.

Soilik VIEA ebaluazioko balio adierazgarrietatik beherako eduki poluitzaileak dituzten materialak utzi ahal izango dira lursailak betetzeko edo egokitzeko, lurzoruaren poluzioa prebenitu eta zuzentzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen I. eranskinean jasotakoari jarraiki.

2.c.5.4.– Hondakin arriskutsuak jasotzen dituzten ontziek hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren ontziak etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du, eta uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideetan oinarritutakoa.

2.c.5.5.– Olio erabilia kudatzeko honakoak hartuko dira kontuan: industriako olio erabiliaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretua eta olio erabiliaren kudeaketa Euskal Autonomia Erkidegoan arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretua.

Erabilitako olioak aldi baterako biltegiratzea, hau da, baimendutako kudeatzaileak biltzen dituen arte, ontzi edo segurtasun-sistema batean gordetako biltegietan egingo da, horrela biltegi nagusia apurtuz edo galduz gero olioa sakabanatzea saihesteko.

2.c.5.6.– Araudi hau errazago betetzeko, lan desberdinetan sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak edukiko dira. Sistema horiek lanen arduradunek kudeatuko dituzte, eta horiek

arduratu behar dute langileek sistema horiek behar bezala erabiltzeaz. Sistema horiek zeregin bakoitzaren arduradunek kudeatuko dituzte eta haiek berak arduratuko dira beharginek behar bezala betearazteaz. Bereziki, inolaz ere ez da eragingo kontrolatu gabeko efluenterik erregai eta produktuak biltegiratzean, makineria mantentzeko lanak egitean edo hondakinak erretzean.

Aurrekoaren arabera, berariazko gune bat atonduko da hondakin arriskutsuak (olio-latak, iragazkiak, olioak, pinturak eta abar) aldi batez biltegiratzeko. Horiez gainera, eta bereiz, hondakin inerteak biltzeko berariazko edukiontziak jarri behar dira. Era berean, sortzen diren hondakinak biltzeko gailu iragazgaitzak jarriko dira (upelak...), eta hondakin horiek ezaugarrien arabera bereiziko dira, aipatutako gune garbian aldi baterako pilatu aurretik.

2.c.6.– Paisaia babesteko eta lehengoratzeko neurriak.

Lanek erasandako alde guztiak lehengoratuko dira; baita ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanean agertzen ez zirenak baina azkenean proiektuaren ondorioz kaltetu direnak ere. Lehengoratze-lan horietan, eragindako espazio guztiak berriz estaliko dira landarez, baldin eta landare-estaldura izan dezaketen eremuak badira.

Horretarako, bertako espezieak, inguruko landareri potentzialekoak, erein eta aldatuko dira, batez ere euskarrien inguruan, materiala biltzeko guneetan, horrelakorik badago, sarbideetako lur-erauzketetan eta ezpondetan, eta linearen mantentze-lanetarako gordeko ez diren sarbideetan. Lehengoratze hori landaretzarik gabe gelditzen den segurtasun-bidean ere egin beharko da. Ildo horretatik, zuhaixka eta zuhaitz autoktonoak sartuko dira, halako ezaugarriak dituen linea batek ezartzen dituen baldintzak bete daitezen, neurriari, bertikalki garatzeko gaitasunari eta erregaitasunari dagokionez.

2.c.7.– Garbiketa eta obra bukatzea.

Obrak bukatu ondoren, bazterrak garbi-garbi utzi beharko dira, proiektuaren eragin-eremuko obrahondakin guztiak kenduz.

2.c.8.– Ingurumen-aholkularitza.

Obrak amaitu arte eta horren bermeak dirauen arte, ingurumen gaietan eta neurri babesle eta zuzentzaileetan, ondo jantzitako aholkularitza eduki beharko du Obraren Zuzendaritzak, ingurumenaren eraginari buruzko azterlaneko erabakien arabera. Baldintza-pleguan obra-zuzendaritzari gai horien inguruan esleitutako egitekoak direla-eta, obra-zuzendaritzak, erabakirik hartu aurretik, aholkularitza horretako espezialistek egindako txostena hartu beharko du gogoan.

2.c.9.– Lan-programaren diseinua.

Lanak hasi aurretik kontratatzaileak jarraian datozen idatzi-zatietan azaltzen diren gaiei buruzko jarduera-proposamen zehaztua egin beharko du. Proposamen horiek, Ingurumen Eraginaren Adierazpen honetan kasu bakoitzerako ezartzen diren irizpideen arabera diseinatuko direnak obra-zuzendariak onartu beharko ditu, aurreko atalean aipaturiko ingurumen-arloko aholkularitzaren txostena aztertu ondoren, eta gauzatu beharreko lanprograman integratuta gelditu ko dira. Dokumentuak jarraian zehazten diren hauek dira:

● Sarbide, lan-plataforma, makinak edukitzeko gune eta obra-material eta hondakinen aldi baterako biltegien kokalekuak eta ezaugarriak.

● Obretan sortutako eraikuntza- eta eraiste-hondakinak kudeatzeko plana, eraikuntza- eta eraiste-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuaren 5.1 artikuluan eta ebazpen honen 2.c.5.2 atalean jasotakoaren arabera.

● Obrek eragindako azalerak lehengoratzeko aurreikusitako neurriak, ebazpen honen 2.c.6 atalean ezarritakoaren arabera.

2.c.10.– Eremu elektromagnetikoetarako azalpenaren inguruko kautelazko neurriak.

Linearen funtzionamendu-aldiak eremu elektriko eta magnetikoen balioek ezingo dituzte Europar Batasunaren Kontseiluaren 1999ko uztailaren 12ko Gomendioan –pertsonen eremu elektromagnetikoekiko (0 Hz-tik 300 GHz-ra) azalpenari buruzkoa– adierazitako erreferentziako mugak eta oinarrizko mugaketak gainditu.

2.D.– Ingurumena Zaintzeko Programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak proiektuaren ingurumen-eragina ebaluatzeko aurkeztutako agiriekin bat etorriz egin behar da.

Programa hori obra kontratatzeko baldintza-pleguetan sartuta egon behar da, eta bete ahal izatea bermatuko duen aurrekontuaz hornituko da.

2.d.1.– Gorabeheren erregistroa.

Horrez gain, obrak egin ahala sortutako gorabeheren erregistroa egin beharko da, baita neurri zuzentzaileak eta babesleak noraino bete diren jasotzeko ere. Erregistro hori Ingurumen Sailburuordetzak ikuskatzeko moduan egin beharko da, eta, obrak amaitzen direnean, nolanahi ere, Sailburuordetzara bidali beharko da. Proiektua gauzatzean aldaketarik egin bada, aldaketa horiek xehetasunez adierazi beharko dira. Aldaketa guztiak, gainera, ingurumenean eragin dezaketen kaltearen ikuspegitik justifikatu behar dira.

2.d.2.– Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisien eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Emaitzak azpiegitura abian jarri eta handik urtebetera bidaliko dira, ingurumenean aditua den erakundeak egindako txostenarekin batera. Aipatutako txostenean emaitzen analisia jasoko da, eta aipamen berezia egingo zaie epe horretan izandako gertakari nagusiei, baita haien kausa eta konponbide posibleei ere.

Sustatzaileak datuak euskarri egokian bilduko ditu bi urtez gutxienez, eta Administrazio Publikoen ikuskaritza-zerbitzuen eskueran egongo dira; hori guztia, hala ere, ez da eragozpena izango kasu bakoitzean aplikagarri den araudia betetzeko.

2.E.– Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egiturari eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala egitera bagaramatza, neurri babesle eta zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldatu ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, ingurumen-organoak, jardueraren sustatzailearen eskariz edo bere kabuz, neurri babesle eta zuzentzaileak edota ingurumen-zaintzako programa aldatzea erabaki dezake baldin eta egoki baderitzo ingurumen-zaintzako programaren ondorioak ikusita edo neurri babesle, zuzentzaile edo konpentsatzaileek gerta daitezkeen ingurumen-inpaktuen inguruan erakusten dituzten gabeziak kontuan hartuta.

2.F.– Ebazpen honek aurreko idatzi-zatietan ezarritakori kalterik egin gabe, proiekturen sustatzaileak jarraian aipatutako agiriak helaraziko dizkio ingurumen-organo honi, espedientean txertatzeko.

2.f.1.– Obrak amaitutakoan, iraun duten bitartean izandako gorabeherak eta neurri babesle eta zuzentzaileen betetze maila adierazten dituen erregistroa, ebazpen honen 2.d.1 puntuaren arabera.

2.f.2.– Azpiegitura abian jarri eta urtebete igarotakoan, ingurumen-zaintzako programaren emaitzak, ebazpen honen 2.d.2 atalean aurreikusitakoaren arabera.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 47.8 artikuluaren arabera, bi urteko epea ezartzea proiektua egikaritzen hasteko, Ingurumenaren gaineko Eraginari buruzko Adierazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik. Epe hori proiektuari hasiera eman gabe bukatzen bada, sustatzaileari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik, Ingurumenaren gaineko Eraginari buruzko Adierazpen hau baliogabetu egingo da. Hala ere, organo eskudunak hasiera emateko epea luzatu ahal izango du, behar bezala justifikatutako arrazoirik balego.

4.– Urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuak (Proiektuek ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak), bere 14.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, proiektuaren sustatzaileak aldez aurretik jakinarazi beharko dio ingurumen-organoari proiektuari dagozkion lanak zein egunetan hasiko diren.

5.– Ingurumenaren gaineko Eraginaren Adierazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 16a.

Ingurumeneko sailburuordea,
M.ª ARANZAZU LETURIONDO ARANZAMENDI.